

Nafarkaria

• ostirala • 1997ko abenduaren 26a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Leitza • Herri kirolari buruzko erakusketa ikusteko aukera.

Manoli Artza • Iruñeko Hartza jatetxean 25 urte kalitatea eskaintzen.



Hitzen arkitektura

Mikel Reparaz kazetariak Airearen arkitektura lanarekin irabazi berri du Iruñeko Udalak egile berrientzat narrazio laburrean banatzen duen saria. EGUNKARIAN lanean aritua da Reparaz, ohiko kolaboratzailea orriotan. Jatorriz iruindarra den estatubatuar baten bizipenen pasarteak idatzi ditu.



Leitza • Herri kirolari buruzko erakusketa

Ilbeltzaren 6a arte egonen da zabalik Udaletxeako batzar aretoan

Euskal herri kirolen inguruko erakusketa zabaldu berri du Plazaolako Turismo Partzuegoak Leitzako Udaleko batzar aretoan. Gure herria, gure kirola erakusketak herri kirolak izan duen bilakaera aztertzeo aukera eskaitzen du.



Gure herria, gure kirola erakusketak herri kirolak izan duen eboluzioa agertzen du.

JAGOBA MANTEROLA

PLAZAOLAKO TURISMO PARTZUEGOAK biltzen dituen eremuak —Leitzaldea, Ultzama, Larraun, Lekunberri, Araitz-Betelu eta Basaburua— herri kirolari handiak izan ditu eta, oraindik ere, izen ezagunak ematen jarraitzen du. Hari horretatik tiratuz partzuegoak informazio franko bildu du erakusketan. Leitzako udaletxeako batzar aretoak aterpetu du erakusketa, eta osagai hauek ditu: argibide taulak, herri kirolean erabili izan diren eta egun ere erabiltzen diren materialak, eta diaporama bat. Erakusketa lau zatitan banatzen da. Lehenengoan herri kirolen jatorria eta eskualdetik XVI. mendetik gaur egun arte pasatu diren kronistek bertakoez eman duten iritzia jasotzen da. Bigarren atal batean egun Euskal Herrian ezagutzen diren 23 herri kirolak dira mintzagai, haien eza-

garriak eta pasadizoak. Guztia argazki zaharrekin eta azalpen testuekin lagundurik. Beste batzuren artean, bisitariak han aurkituko ditu pilota jokoaren aldaerak, sagardotegiko jokoa izan zen bolajokoan aritzeko boloa eta brilak, sokatiran ibiltzeko sokak, txingak, auzolanerako ibiltzen ziren laiak, ahari talkaren erakusle diren ahariaren adar sendo eta handiak, eta idi probetan idi pareak uztarrarian lotu ondotik eramaten duen harri pisua.

Hurrengo zatian kirolarien mundua eta giroa islatzen da. Egiten duten prestakuntza, herri kirolak sortzen duen giroa eta biltzen duen jendea. Besteak beste, aizkolarien elkarrekin aizkora apustuetan zuten eragin erabakigarria nabaritu du ikusleak. Erakusketa-aren azken parteak gogoetarako go-

mita egiten dio ikusleari. Hainbat proposamen eskaintzen ditu: egun herri kirola nola dagoen aztertzen du, telebista eta publizitatea hainbat kirolean sartzeak zer ekarri duen, orain arte ikusle besterik ez ziren emakumeak ere partehartzaile bilakatu izanak zer dakarren, edota oraingo gazteek ez ote dituzten herri kirolak beste batzuekin ordezkatu. Erakusketak, bestalde, bi bitxikeria jasotzen ditu. Batetik, Iñaki Perurenak harriari egingoak poema eta bestetik *herriko doping* izenburupean garai bateko kirolariak zer jaten zuten gogoratzen duen saskia: arrautzak, pattarra eta taloa. Gaur egungo nahasketa bitaminikoak eta kimikoak txuleta eta dozenaka arrautzarekin ordezkatzeko baitzituzten.

Erakusketa diaporama batekin osatu da. Hamabi-hamabost mi-

nutu irauten du. Herri kirolaren laburpena egiten du, jatorria aztertzen (hirian edo herrian egiten ziren hainbat auzolan), apustuaren garrantzia, eta beste herrialde batzuetako herri kirolak; izan ere, haietan ere praktikatzen direla ikusten da baina hemengoek beren berezitasunak dituztela. Diaporamaren gidaria Mikel Olano filologo leizarrak egin du eta erakusketa Idoia Lasarte, Izaskun Ibarra, Axe Astiz, Ramon Cabestany, Marta Berraondo eta Kepa Gonzalezek prestatu dute partzuegoaren eta Nafarroako Gobernuak Turismo Zuzendaritzaren dirulaguntzarekin. Heldu den ilbeltzaren 6a arte egonen da zabalik, astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

→ Irene Arrizurieta

Bera

Kultur ekitaldi ugari urtea agurtzeko

URTEKO AZKEN EGUN HAUETARAKO ekitaldi ugari prestatu dituzte eskualdean. Gaur, Txalo antzerki taldearen *Xagu Tranpa* lan ezaguna, Agatha Christierena, ikusi ahal izanen da Berako kultur etxean, Berako Udalak antolatuta. 19:00etan hasiko da emanaldia.

Ordu bat beranduago, Etxalarko eskola zaharretan Ur Apalategi idazle gaztea herri eta hiri literaturaz ariko da hizketan.

Biharko, Gure Txokoa elkarteko dantzariak emanaldia prestatu dute. Berako kultur etxean izanen da, arratsaldeko 8etan hasita. Arratsean, Etxalarko Herriko Ostatuan Anari kantariaren kontzertua izanen da, Herriak eta Hiriak kultur hilabeteko azken ekitaldi gisa.

Igandean, Tantirumairu ikastolak antolatuta, EGUNKARIAREN Saltsatronic ikuskizuna izanen da Lesakako pilotalekuan, Hankagorri taldearen eskutik. Ekitaldia arratsaldeko 5etan hasiko da.

Urteberri egunean, azkenik, Bortzirietako Euskal Presoak Euskal Herrira Herri Ekimenak antolatuta, eta aste honetan egiten ari diren gose grebaren barruan, bertso saioa izanen da Berako kultur etxean. 17:00etan hasita, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jon Sarasua, Jexux Mari Irazu, Maialen Lujanbio eta Xabier Silveira kantuan ariko dira Manolo Arozeneren aginduetara.

→ Jon Abril

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Eguberriak datoz garesti seguru langostino, angulak guztion helburu nahiz ta opariekin hamaika apuru bostmilakoak errez batatzen ditugu ta gero sozialistak garela diogu.

Gure bi milagarren urteko aldaba uki dezakegula egia al da ba tratu txarrek ez dute behar adina traba senarrak emaztea ez du erre bada! Ta gero eskubidez berdin omen gara.

Mahai Nazionala ezin da etorri bake alternatiba guztian jatorri. Ziega beltza dute ta malkoak gorri epaiketa baino lehen epaia igorri. Ta gero justizia deitzen zaio horri.

Nire atala nahiko arraroa omen sekula ez dut hola idatzi bederen. Nahiz eta pobreegia gertatu daiteken Xoko Ttikia doinuaz apaindu dut hemen urtea bertso bidez agurtu nahi nuen.

Lekunberri

Ekitaldiz
beteriko
Eguberriak

URTERO EGIN OHI DUEN moduan, aurtengo Eguberrietarako ere ekitaldi pila bat antolatu du Mitxausenea kultur etxeak. Gehienbat haurrei zuzendutako ekitaldiak izan arren, nagusiek ere izango dute jaiegun hauek nola aprobetxatu.

Egunero-egunero, goizeko 11:00etan haurrentzako tailerrak prestatu dituzte: eskulanak, jokoak... Bi orduz, lagun artean ariko dira etxeko txikienak, oporretan ugariagoa den astialdia hala nola beteaz.

Igandeetan, berriz, zinema emanaldiak izango dira. Orain hasi eta urte guztian antolatu ohi dira zinema saio hauek, helburu bakarrekin: sarreren bidez jasotzen den diru guztia eskolako azken mailako haurrentzat izaten da, kurso amaieran egin beharreko txangoa ordaindu ahal izan dezaten. Bi izaten dira emanaldiak: lehenengoa, arratsaldeko

5:30etan, txiki-txikientzat, eta ondoren, zazpitan, gaztetxoentzat. Besteak beste, Gabon hauetan, *Matilda* eta *Independence Day* bezalakoak ikusi ahal izango dira.

Bestalde, egun seinalatueterako ekitaldi bereziak prestatu dituzte. Urtarrilaren lehenean, umek nor baino nor ari beharko dute, taldeka, galdera eta probez osatutako lehiaketa xeble batean. Errege egunean, Vienako haur kantariak bailiren, Aralar Udal Musika Eskolako ikasleek urtean ikasitakoa erakutsiko diete bere bizilagunei.

Eta noski, ezin ahaztu Errege bezpera, urtarrilaren 5ean izango den jaialdia. Erregeak etorriko dira (aurten zerutik etorriko ote diren...) eta ondoren, umekin ariko dira kontutan sariak banatzen dituzten bitartean.

→ Urko Aristi

• Lizarra •



OSKAR MONTERO

Olentzerok ehundaka lagun bildu zituen Lizarrako karraketan

Nafarroako beste hainbat herritan bezala, urtero lege, joan den asteazken arratsean jendetza handia bildu zen Lizarrako kalekantoietan Olentzerori ongi etorri beroa ematera. Ohitura zaharrek diotenez ikazkina Urbasa menditik jaisten da Lizarrara, eta behin herrian barna, Olentzerok urte berria iragarri eta Gabon gaua zoriondu zion karraketan bildu zen jendetzari. Ibilbidean adin guztietako jendea pilatu zen, euskal jantzia soinean eta gabon kantak ahoan zituztela; bertzeak bertze, *Olentzero* eta *Hator hator* abestiak kantatu zituzten handi nahiz txikitxoek.

Tafalla

662 milioi pezeta kirol instalazioetarako

TAFALLAK 662 MILIOI PEZETA JASOKO DITU ESPAINIako aurrekontuetatik Kirol Hiria proiektua gauzatzeko. Dirutza datorren urtetik aurrera iritsiko da: hamar milioi 1998an, 326 milioi 1999an eta beste horrenbeste 2000. urtean. Espainiako eta Nafarroako gobernuek eta Tafallako Udalak datozen hilabeteetan zehaztuko dute nola finantzatu proiektu osoa, Madrilek ordainduko duena proiektuaren erdia baino gutxiago da eta. Kirol Hiria proiektuaren aurrekontua bikoiztu egin da denbora gutxian. Hasiera batean asmo bakarra belodromoa estaltzea

zen. Belodromoa 56 milioi kosta zen, eta 1990eko martxoan zabaldu zuten. Lau urte geroago, 1994ko otsailan, 7.400 metro koadro estaltzeko negoziaketak hasi zituzten Nafarroako Gobernuak eta Tafallako Udaleko agintariek. Belodromoa estaltzeaz gainera, igerilekua, kiroldegia eta frontoia eraikitzeko asmoa zuten ordurako. Garai hartan proiektuak 600 milioi pezetako aurrekontua zuen. Proiektu ofiziala onartu zutenerako, lazko apirilean, aurrekontua 1.325 milioi-koa zen.

Tafallako alkate Luis Valero (UPN) saiatu zen aurtengo Espainiako aurrekontuetan zuzenketa bidez sartzen Kirol Hiriaren proiektua. Alferrrik, ordea. Hori ikusirik, UPN eta PP ados jarri ziren proiektua nola edo hala sartzeko 1998ko aurrekontuetan. Tratuaren emaitza joan zen astean ikusi zen Espainiako Senatuan, senadorek UPN-PPren zuzenketa onartu zutenean.

herri aldizkariak

Edume Elizondo

Pantxoa eta Peioren arrakasta

Herria aldizkariaren azken aleak Pantxoa eta Peioren *Oles ta oles* disko berria du mintzagai. «Diska berri bat agertu da egunotan. *Oles eta oles* deitzen da eta badu jadanik gaitzeko arrakasta. Diska hortan, hamabost kantu, Eguberri irian errepikatzen direnetarik. Kantariak Peio eta Pantxoa, sei urte huntan ixilik zaude-nak. Gainerat, diska horren oraino gehiago ezagutarazteko, bospasei aste barne, hamar bat kantaldi emanen dira mugaren bi aldetan. Lehen biak ja emanak funtsean, Bilbon eta Durangon. Iparraldean batto emanen Ziburu-

ko elizan, abenduaren 21ean. **Herria-k**, bestalde, diska berriaz galdetu die bi abeslariari. Bi abeslariak berezia dela diote: «Orai atera den diska hori sartzen da aise zabalagoko proiektu batean. Diska hori bera ez da sail luze baten hastapena baizik. Proiektua bera deitua dute Urte sasoiak eta mamia hauxe dauka: Euskal Herriko ohitura zaharren garaitzapena, ahan-tziak direlarik berriz ezagutaraztea, urteko sa-soin bakoitxari johan zaizkion kantu, soinu, jauntzi eta dantzak herri guziari agertuz. Sa-soin bakoitxarentzat jalgiko da beraz diska

bat, baina jalgiko da ere bideo bat eta liburu bat. Diskaren izenburua hartzen duen hitzetaz ere hitz egin dute bi abeslariak **Herria-n**. «Egia erran, nik ere ez nuen ezagutzen. Aspaldian galdua omen da ainitz lekutan eta baditake toki batzuetan ez den beinere erabili ere. Dena den, oles erraiten zen jendearen agurtze-ko eta denbora berean zerbaiten galdez ibili zela erakusteko. Etxez etxe eske zerbait egiten zutenek zioten hor gandi oles ta oles... Itsa-sondoko aldean segurik, *Oles ta oles* kantua hangoa baita».

Donesaturdiko



Milagros

Milagrosek 35 urte dauzka, hiru seme-alaba ditu, eta Arrotxapean bizi da, zorte txarra dauka. Senarra Tafallakoa du. Hori dela kausa, sarritan joaten dira Tafallara, amaginarrebak Kale Nagusian duen etxera. Milagrosek ezin du amaginarreba jasan. Araza da amaginarrebak ezin duela Milagros jasan. Amaginarrebaren irudikoz, Milagrosek ez du deus ongi egiten. Milagrosek zerbait egiten duen bakoitzean, amaginarrebak gaizki egina dagoela esaten du, ozen, zirikatzaile.

Nafarroaren eguneko zubia aprobetxatuz, Milagrosek, senarrak eta seme-alabek lau egun igaro zituzten Tafallan. Horieta-ko batean, Milagros eta amaginarreba erosketak egitera joan ziren elkarrekin, etxepeko supermerkatura. Amaginarrebak hamaika aldiz esan zion Milagrosi hura edo eta bestea ez zuela erosi behar, bazela beste bat hobea eta merkeagoa. Ordaintzerakoan, kobratzen zuen neskak loteria eskaini zion. Amaginarrebak erantzun zuen ezetz, ez zutela nahi, haiek ez zutela dirua alferrik gastatzen. Milagrosek, haatik, bere bizitza osoan lehen-dabizikoz, amaginarrebari aurre egin zion, eta loteria erosi zuen.

Milagrosek ez du sekula loteriarik erosi. Alta, amaginarrebari ez erosteko entzun ziolarik, erosteko gogo bizia sentitu zuen. Seinale bat zen. Pentsatu zuen ordura arte loteria bakarrean parte hartu zuela, eta sari nagusia eskuratu zuela. Ezkondu zelarik, etxeko bortizkeriaren loterian boletoa erosi zuen, senarra, eta sari nagusia tokatu zitzaion, senar alkoholikoa, egunero jipoitzen zuena. Berrero ere sari nagusia tokatuko zitzaion, diru mordoia, eta senarrarengandik banantzerik izango zuen.

Espainiako Loteriako Eguberrietako zozketak 1.400 milioi pezeta utzi zituen Tafallan. Milagrosi ez zitzaion pezeta bakar bat ere tokatu. Loteria supermerkatuan erosi ordez alboko azpiko-arrapa dendan erosi izan balu, egun 14 milioi edukiko zituen, umekin batera etxetik aldegerik izanen zuen. Bestalde, beste gizon batekin ezkondu izan baltz, ez zuen etxetik aldegin beharrik izanen. Milagrosek zorte txarra dauka, oso txarra.

● Egile Berrientzako Literatur Lehiaketa
● Egile Berrientzako Literatur Lehiaketa

Airearen arkitekura


Iruñeko Egile Berrientzako XII. Literatur Lehiaketan narrazio laburrean lehenengo saria eskuratu du Mikel Reparaz kazetari arbizuarrak. Joan den urtean *Gondalen* lanarekin bigarren gelditu zen, eta aurten *Airearen arkitektura*-rekin irabazi du. Garailearen ipuinak jatorriz iruindarra den estatubatuar baten istorioa kontatzen du. Militarra eta hegazkinlaria, bere azken destinoa Bardeak izan ziren. Nafarroara etorrira aitaren etxea (Iruñeko La Perla hotela) bisitatzeko aprobetxatzen du, eta bidenabar bere jatorria. Iruindar izan nahi duen arren, konturatzen da atzerritar izatera kondenatua dagoela. Ondoren eskaintzen dizueguna saritutako obraren parte bat da.

(...) AMAIAREN ATZETIK SARTU ZEN USAFEKO tenientea Iruñeko gaztetxean, Calderria karririkako 17an. Iluntze hartan hiriko alde zaharra erakutsiko ziola agindu zion neskatoak, eta Matt Gardek onartu egin zuen gonbitea, berotasun handiegirik azaldu gabe baina. Goizean ezagutu zuen gaztea arras ezberdina iduritu zitzaion hotelaren aitxinean, Windsor kafearen terrazan paper solte bat hitz azkarrez zikintzen ari zelarrik arratsalde on, zer moduz, etorri zitzaionean. Goizean ezagutu zituen betaurerko lodien barruko begi arrastoak gaztain koloreko bilakatu zitzaizkion, garden. «Lentilak jazten ditut kalera ateratzeko», esan zion harridura imintziolari erreparatzean. Tenienteak ez zuen hagituz zintzoki ulertu esan zion hura, eta *contact lensak* zeramatzala otu zitzaion. Hori zela eta zuela itxura diferentea, adatsaz gain hori baitzen different sumatzen zion gauza bakarra. Adatsaren uholde beltza sorbaldetan behera isurtzen zitzaion, gorputz osoa pareko, aske eta freskotasunez artikulatua, Iruñeko karriken galtzarrien gainetik irristatzen utzia, harlandua ukitu gabe kasik, bakero eta kamixeta estuen azpitik zizelatutako gorputza. Goizean hoteleko saloiko elkarrizketan senditu zuena senditzen hasi zen berriro tenientea, illura ezkutu madarikatu haiek berriro, desio bultzada kontrolagaitzak, begirada itzuruak berriz, gaztetxean neskatoaren atzetik sartu ahal. Hartan, ordea, ezin izan zuen eldar- nioa kontrolatu, erreprimitzen saiatu zen, baina zerbait epain estutuetaetik ateratzera zihokoia nabaritu zuen, ahoa betetzen zion zerbait horrek kanpora atera behar zuela, eta «pantera» deitu zuen, nahi gabe. Orduan, inguruari begirada elektriko eskaini zion, betizu, Amaiak eldar- nioaren ahotsa entzun bazuen ihes egiteko prest. Baina Amaiak ez zuen fitsik aditu, eta Matti zaharra iduritu zitzaion Calderriako 17garrena. Baina ez zahar Iruñea historiko horren gainontzeko erailkinak zahar iduritzen zitzaizkion modu berean. Zahar baino utzia, zahartzen utzia, finean. Halakoak iduritu zitzaizkion kolore bizkorrez pintatu pare- tak, eta pareta haien azalean kartel eta idazki anitzek begiradaren ekortze laburra merezi izan zio- ten. Eta une batez Amaiairen gertutasuna ahaztu zuen, begiradaren farrasta lausoa hiru irudi utzi baitzizkion erretinan inprimaturik. Igeltsuzko eraikin ahulean sartu eta eskuinera zegoen atea bultzatu eta ke artean galdu zen neskatoa. Matten erretinak, artean, hiru irudi, hiru flash gorde zituen: bizikleta baten koadro fluoreszentea, kami- xeta eta galtzerdi hezeak soka batetik zintzilikia eta atzeko hankak arkakusoak uxatzen saiatzen zen zakur urdina. Atzera, inguru arrotz haren beldur zenaren itxurak eginez, panteraren pausoei jarrai- ki zien, eta tabernako lainoarekin bat egin zuen berak ere.

Iluntze hartan
hiriko alde zaharra
erakutsiko ziola
agindu zion
neskatoak, eta
Matt Gardek
onartu egin zuen
gonbitea,
berotasun
handiegirik azaldu
gabe baina.

«Edateko zerbait nahi al duzu, Matt? -Amaiairen hitzak freskoak ziren, nabardurarik gabeak; baina Matt Gardek orori nabardurak bilatzen ahal- men berezia zuen, eta itaun hari mintzaira atse- ginegia hauteman zion. «Matt» hori konfidantza ia intimo baten mintzairaz zegoen ahoskatua. Hey, do you want something to drink? Tenienteak begiak bi eskuez igituz zituen, ur- duri. Berriro ere harrapatuko zuela bururatu zi- tzaion, kontuz ibiltzen ez bazen haren desio ezku- tuenak agerian geldituko zirela Amaiairen aurre- an. Orduan, neskatoak esan zionari kasu eginik, behatzez okozpea ferekatu eta *bloody mary* bat es- katu zuen. Non eta Iruñeko gaztetxean, pentsatu zuen algaraz eta penaz Amaiak. Barrarantz buelta hartu zuen, bi patxaran eskatzeko, tabernaren atetik bere adin beretsuko neskato txapar batek dei egin zionean. Unibertsitari trazako antiojodun lodikotearen atzetik (Agramonten atzetik, ohiko aurkezpenen ondoren tenienteak jakin zenez), hiru gizonetako agertu ziren, bi mutiko altu bezain mehar eta berrogei bat urteko gizona. Lau iritsi berrieke neguko arropa hermetikoak zeramatza- ten, ante eta feldrozko berokiak eta koadrodun bufandak. Gehiegizkoak iluntze epel hartarako. Amaiak berehala ezagutu zituen, «Agramont!» esan zuen unibertsitari txaparra ikusi zuenean, eta keinu batez agertu zituen gainontzekoak. Agramont Amaiairekin hizketan ari zen bitartean, bi mutil belabeltzak Matti zuzendu zitzaizkion, eta berrogei urtetik gorako gizaki serioa atzean gelditu zen. lekuz kanpo eta aretoko ke artean tente. -Zu al zara Mateo Garde, Pirinioko yankia? - esan zuen 1,90 metroko antiojodun estrabikoak, adimen erakustaldi ikaragarri batean. Amaiak Iruñeko alde historikoa erakusteko gon- bitea luzatu zionean, goizekoaren ostean, teniente- ari esan zion kultura munduko jendea ezagutuko zuela, Iruñerriko eskual munduko pertsonaia- rik inportanteekin bilduko zirela iluntzean. Matt ek ez zion hura kontutan hartu, edota ez zion «eskual mundu» hura zer arraio eto zen konprenitu. Eta han zen orain, eskual kulturaren munduko lauko- te harekin Iruñeko gaztetxean bilduta. Ia bi metro- ko estrabikoa aurkeztu zion Amaiak lehenik, «idaz- lea da, poeta, eta unibertsitateko euskara taldeko burua». Eskua eman behar izan zion mozolo hari, nahiz eta berak nahi zuen gauza bakarra Amaia- ren bakarrrik egotea zen, *bloody mary*, patxaran edo dena delakoaz leporaino desio sekretuak aitormen bilakatzeko, haren belarrietara xamur, hats epela belarrian sumatzearekin batera hitz goxoak esanen baitzizkion, lizunak, eta ez baitziztaion gehiago amildegiaren ertzean mintzatzeko. Alta, baxalo es- trabiko poetari eskua eman zion, eta berori ere gainontzekoak baino lehen akitzen zen. Hori ger- tatu zitzaion hartan tenienteari. Eta minuto- ala

tuen ere. Eta berrogei urtetik gorako leurdina, «ka- zetari eta irrati esatari intelektuala». Amaiairen azalpenen arabera. Hari ere eskua eman behar izan zion, gau guztian hitzik zuzenduko ez bazion ere. Irrati salo batera gonbidatu zuen, bihamunean eginen zen irrati saio «intimistara», eta arratseko bostetan egin zuten zita. Unibertsitatean «Zer da euskaldun izatea?» izenburupean ospatuko zen mahaingurua goizean izanen baitzen, eta beraz Matt Garde amerikano eskualdunak ez baitzuen astirik izanen goizeko magazinean parte hartzeko. Gainera, «Agramont antiojodun txaparra oin pun- tetan altxatu behar izan zen tenienteak adi zie- ztaion- bere lagun batek elkarrizketa eginen zion bazkalordua probetxaturik, egunkari baten gehiga- rri kulturalean argitaratzeko. Amaiairen lagun ilustratuek elkarrizketa da- daista eraki zuten lehenbiziko alkohol xurrut si- kuak barneratu ahal. Absurdoaren mugan, es- trabikoaren hitz joko aspergarriek gai transzen- denteetara eraman zituen, Jainkoaren eta mitolo- giaren eta indarkeriaren eta euskal gatazkaren gai eternaletara. Amaiak ez zuen elkarrizketan zuen- ki parte hartzen, bitrina baten atzealdetik begira- tu eta entzuten zituen haien keinuak, hitzak. Mi- ratu egiten zituen pertsonaia lagun haiek, mires- penez behatzen zituen. Elkarrizketa haietan ikus- entzule gisa egoten ohiitua zegoen, eta pentsaezina zen iritzi propio batez euskal kulturaren ordezkeri- ari haren agudezia jarria eteten saiatu ere egitea, amesibiltaria astinduka esnaraztea bezain mal- zurra litzateke ideia Amaiaientzako. Horregatik bitrinaren atzetik behatzen zituen Agramont, es- trabikoa eta besteak, eta haren agudeziei barre ko- ruak jartzen zizkien, barreguraz baino mirespenz frankotan. Hartan, gaztetxeko solas dadaista ab- surdoaren ondotik, terminalaren laztasun eta me- soliaren anizkeriaren atzetik malkoz malko eta ale- griaren malenkonía atzean utzirrik, eronda hasi zuten gaztetxeko taberna bereko izkin berean amaitu zuten, auskalo zenbat ordu -ala minuto?- beranduago. Amaia, bitrinaren atzealdetik beha. Eta tenientea, gau hartako kanuto eta agudezien aitzakia, hitzik esan gabe, burua mugituz ulertzen ez zuenari arrazoia emanez hasieran eta fitsik konprenitu ezan Amaiaz ametsetan gainontzean, edanari atxeki zitzaion. Horixe gerta ohi zitzaion hain zuten Amaiairi unibertsitatean zegoenetik, erreallitatearen analfabetoekin ateratzen zenez ge- rozтик. Solasari lotzen zitzaizkion haiek, eta nes- katoak barre koruak jartzen zizkien, ohi legez. So- lalean haiek, edan eta barrez hau. Barrea, xurru- ta, barrea. Dinamika hartan, kalimotxo basoak- zerbeza ez baitzuen maite- hizlariek baino azka- rrago akitzen zituen berak, eta berori ere gainontzekoak baino lehen akitzen zen. Hori ger- tatu zitzaion hartan tenienteari. Eta minuto- ala



Mikel Reparaz kazetari arbizuarra. ● ARTXIA

ordu? - haien ostean, intsumisioaz ari zirelarik, gernu kiratsez heze ikusi zuen bere burua, kantoilun batean makurturik. Gernu eta goiti- kaz blai, begirada kubista altxatu zuen, eta kantoiaren ilunean bizikleta koadro fluoreszenteari eta soka batetik zintzilikaturiko galtzerdi pareari errepa- ratu zion. Zakur urdina falta duk, pentsa- tu zuen, eta bortxaz matrailak aurreratu zi- tzaizkion, erraietakoak isurtzeko. Iluntasunean, esku batek ferekatu zion biz- kar gaina. Burua itzuli eta betaurerorik gabe- ko begiak aurkitu zituen aurrez aurre. «Ze, txun- go?», galdetu zion, eta besotik helduta hoteleko atariraino lagunduko ziola esan zion. Lasai egote- ko, gertu zirela, eta sanferminetako yanki ziztrin bat ematen zuela, giri madarikatu bat. Esaidan ba- da zer den, giri puta bat ez badun...», intelektual estrabikoaren ahotsa nahastezin iduritu zitzaion. «Gu gara girien guru...» aditu zion, distorsionatu- rik, azken agudezia kantatzen. Atzean gelditu zen, ahalik eta guztiz isildu zen arte, eta tenienteak, neskatoaren besoari eutsirik arrastaka, aldapan gora plazaren atartetara allegatu zen, galtzarri bustien gainetik. Kaleahoaren bi angeluetan, ber- pizkunde edota barrokoaren garaietatik Iruñearen historian zehar hantxe egon izan balira bezala, bi estatua urdin ilun ikusi zituzten, tente, zurrin. Poliziak iduritu zitzaizkion tenienteari, eta esku- tan zeramatzaten armak ikusirik, salutantzia mili- tarra egin zuten haien albotik pasatzean. Amaiak besotik tira egin zion orduan, arren isilik egon ze- din eskatuz, eta tenienteak neskatoaren hats be- rra senditu zuen belarrian. Haren hatsaren beroa senditu zuen berriz ere jada hotelaren atarian zire- la esan zionean. Gehiegi hurbiltzen zitzaion neska hitz egiterakoan, alkoholak eragiten duen prezisio falta zela-eta ziurtenik. Alta, Matt tenientea espe- zialista zen nabardurak bilatzen, eta Amaiak hats beroa nahita botatzen ziola egin zuen kontu, ze- bait esaten ari zitzaioela, eraman nazazu zure koar- tora eta egidazu amodioa. Burutazio lizunak izate- ko hordiegi zegoen, eta goizekoaz oroitzen zen aitzi- nean zuen neskatoaren gorputza irudikatze- ko. Baina oroimenak ez zuten asetzen, eta eskuez iru-



desoreka irudikatu ohi duen lehen planoaren zain horiek, munstro itxura emanen ziotela otu zi- tzaion, eta Jekyll eta Hy- den filme zaharra gogora- tu zitzaion, doktorea munstro bilakatzen deneko- a, eta ingurua zuribeltzean ikusten hasi zen, hoteleko gela, kristaletik kanpoko plaza, farolen lurrin epelaz argitua baino itzulia, eta polizia- ren sirena hotsa, musika bitonala aditu zuen urru- tian, diputazioko zutabe neoklasikoan gibeletik zetozen distirak, gero eta gertuago zen musika, eta erlantz urdinek zuribeltzetik koloretara itzuli zuten ikuskizuna, plaza inguratuz furgoi franko agertu ziren, urdin ilunak denak, distira urdin ar- giez koroaturik, sirena bitonalen artean kristal puskatuaren hotsa, molotov koktelen sugar zu- riak, eta polizia moztortuak baino moztortuago lasterka ari ziren gazteak, Hemingwayen fiesten bertsio irragarria zela pentsatu zuen, agian hura gutzia turistentzako ikuskizuna zela, hotelekoek prestatua, eta logelaren prezioan barne zegoela koreografiaren suplementoa, baina nerbioak piz- ten zizkion korrante alternoak ez zion utzi balizko erreallitate hura ikusten, turistentzako iruzurre- an erori zen, beste hainbat amerikano bezala, pentsatu zuen, eta kanpoan gertatzen ari zena goitik behera, hasieratik akaberara sinetsi zuen, poliziak eta titiriteroak, su irenseak eta malaba- reak, zezensuzko eta zezen haragizkoak, 220 vol- teko korrontek ez zion uzten fikzioa zena fikzio bezala ikusten, eta ikaratutik baino patxaranez ausart senditu zuen bere burua, eta leihoa ireki eta balkoi estura atera zenean, bataz jantzirik, ga- solina lurrin bortitzak egin zion sudurzuloetan gora, eta gasolina errearen gorakada profitatuz, goizaldeko Gaztelu plaza ilunari aurre egin zion, eta bularra airez hazirik mister Hydek orrore egin zuen. Iruñeari buruzko bideo promozional batean aditu zuena errepikatuz: «Biba San Fermín!» (...)

- Zu al zara Mateo Garde, Pirinioko yankia? -esan zuen 1,90 metroko antiojodun estrabikoak, adimen erakustaldi ikaragarri batean.

Joxemiel Bidador

Nafarroako eguraldiaren historiarako datuak: Tutera, 1643-1971 (I)



Ez da jalo nor Tutera-Ebro bikotea banan daitekeela esatera ausartu, ausartzen, ez eta ausartuko denik. Pasa den abenduaren 16an, atzeneko urtetan eguberriei agurra emateko ohitura bihurtzen ari zaigun legez, elurra egin ziren, berriz ere, Erriberan. Ez zen motela gero, baina 17rako jada, teilatuetan bakarrik geratzen zen arrasto zuri hori desagertua zen, urrutian, Olibetemendiko barde mugetara begirada luzean, narrast eta lainoen artean, ikusten ziren antzizgar ilada zuria ez baziren behintzat. Baina Tutera, elurrak, hormak eta neurri gabeko eurijesak ez zaizkigu arrotz. Mendialdekoak ere berriz ez ditugun legez, bada, Tafallatik goiti heze doakienean, Ebroren altueran aisa atzematzen baitugu, egungoan ez hain larri, baina betiereko aztoramendu artegaz.

Patziku orrialdeaguna, aspaldian ibilia da horrelako berriren xerka. Ollaranen jazotakorik eske etorri zitzaigunean, ezin izan nuen ezertxo ere pasatu, eta telefonoz bakarrik, halako batean, liburutegiko aleki zaharkitu batean Pitillasen -gaizki oroitzen ez banaiz-, botatako txingorraren berri eman ahal izan nion herabeki. Berandu baina, Tutera zerrrendatxo hau intereskoa lekiokelakoan nago. Deskargutzat balio bekit bederen.

Has gaitzen, bada, ibilaldi zoro hau 1643.eko otsailaren 18an; egun hartan Ebro uhaldeak gainezka egin zuen unduski: zubiko bigarren, hirugarren eta laugarren arkuak erabat estaltzerainoko.

1645.eko abenduaren 28an, berriz, izotza dugu jaun eta jabe, olibondo guziak abarrikatu zituen. 1647.eko izozteek ordea, bizirik geratu ziren olibondo apurak erabatez kalitu zituzten. 1660.eko uztailaren 21ean, arratsaldeko bostetan izan zen lurrikara, urte hartako aipagarriena genuke.

1688.ean, Monkaio menditik Ebrora buruz, Tutera barrera igarotzen den Keiles errekek gainezka egin zuen teiu: plazako arku bat botatzeaz gainera, hainbat kalte eragin zituen udaletxean eta Jose Ezkerrarenean. 1694.eko urtarrilaren 11n egin zuen hotzak, Ebro hormatuta utzi ziren zenbait egunetan. 1695.eko urtarrilaren 23, 24 eta 25ean elurteak majo izan ziren, eta otsailaren 3 eta 9an, aldiz, hotza, ozen eta garratza, bafada ziztrinekoa: Kardeteko, Balpertuna, eta Baratzengusiko olibondoak inarrotea ezezik, abondo kabale eta jendaki hil zuen. Abenduaren 28an Ebro izoztuta agertu zen harzara. Hurrengo aldia 1709.ean izan zen. Urte horretan ere Keiles bere bidetik atera zen, eta dezente hildako eragin zituen.

1755.ekoa zalapartasua joan zitzaigun zinez. Urtarrilaren 6a hain izan zen hotza ezen Ebro hormatu zen, baina, tamalez, ez osoz. Zubiko begi bakarretik igarotzen zen ura, eta karroinez sortutako presa zela eta, ura alorretan sartzen hasi zen. Baratzetako izorratu baino lehen, zubi azpiko hormak mailuekin puskatzen joan behar izan zen ura pasa zedin. Azaroaren 1ean berriz, lurrikara ikaragarria gertatu zen goizeko 10:30etan. Eliz nagusian meza ospatzen ari zirenak, elizkizunak bertan behera utzirik, arrapaladan atera ziren elizatik gloskan, zauritu eta hildako gehiago horrela gertatuz.


lurrikarak berak eragin zitzakeenak baino. Fede kontua, bistan dena.

1829.ean egin zuen hotz handia zela eta, Ebroren ertz batetik bestera aisa pasa zitekeen oinez. Honi «Izotzaren urtea» zeritzon luzaro. 1834.eko abenduaren 28tik, berriz, Ebrok 15 egun iraun zuen izozturik. 1887.ekoa ere ez zen samurra izan, -14°C egin zuen, eta olibondodi guzti-guztiak pikutara: 10.500 robada.

Pasa den mendearen bukerako otsailaren 13an, Ebrok gainezka egin zuen, eta Tutera rako karriketan sartu zen beste behin ere. Zubi erromatarren azpian igarotzerakoan, ohikoaz gainera lau metro eta erdiko altuera zeramatzen urek. Berdin gertatu zen 1901.eko otsailaren 4an. Horri hala edo nola ekiditeko, Ebro debideratzeko lanak urriaren 24an hasi ziren. Haatik, 1902.ekoa urte beltza agitu zen. Otsailaren zazpian Ebroko urak hiriko karriketan sartu ziren berriz. Maiztaren bostean lurrikara izan zen hirian, eta hilabete osoan zehar bota zuen gelak Erriberako aihen guztiak suntsitu zituen bi urtetan gutxienez mahatsa ezin bilduz. Irailaren 7 eta 8an izan ziren eurijesak zirela eta, alde zaharreko zenbait tokitan urak metatu eta metro batera iritsi ziren, zenbait etxe erorarazirik. Abenduaren 13an ere euri galantak izan ziren, Ebro bere bidetik jalgiarazi zuena, eta Mejanako baratze guztiak hondatu ziren.



Patziku Perurena



Txomin Domingon baratzen

Loaren nortasuna, besteak beste, Txomin izenez adierazten dugu euskaraz. Hala, logalea datorkionari, «Txomin etorri zaito» esaten diogu, edo loak hartu duenari, «Txomin nek eraman du». Lo eta gaua, bistan da, batera datoze, eta ageri denez, Txomin ere gautar izaki. Euskal usuarioan izen sorgina da Txomin; ipui eta kontu zahar askotako protagonista; sorginpean estaltzen diren «zera» horietan. Honatx, bestetara gabe, Leitza bertan, Barungo alaba Maria Jesus Sagastibeltzaren ahotik jasotako kontua:

«Peustenen, yai gau beten apaltzen ai emen zien famili guzie, ta etorri emen zetzioan amona sorgiñ oitako bat, eta ez saludo ta ez deus, sokalden dantzan asi bazter guzik airen zittula:

Txomin Domingon batzen Akerrak ezpatadantzen Gaur Txomin Domingok baleki Akerrak lieke.

Ta, gaben eman omen zioan posada ikulluko ixtor pillen amon orrei lotako, ta biamon gozen yeki emen da famili ori tte, yoan omen die ekullure ta, amona falta ta batzako azak auts iñek, denak txiki-txiki iñek. Sorgiñek baziela ta, esaten baitzuen ba. Aurtxikineko Arrobin, ta garai artantxe izan bear zun orrek.

Horra, hor ere, Txomin Domingo gaueko aziotan buru. Baina, nola argitu behar da Txomin Domingok bereganatzen duen sorginkeria hori? Ez da samurra baina, saiatuko naiz euskal leize ilun honetara sokamuttur bihurri batzuk botzen. Frantziako hegoaldera bildu zen kataro izenekoen sekta heretikoa, karitatea eta pobrezia eruduzat zituela, eta ez adepto gutxierekin; izan ere, eliza katolikoak, konpetentzi bildurrez, kataroen aurkako gurutzada (1209-1229) sortu baitzuen.

Bitarte horretan, Guzmango Domingo santua, Osmako

kanonigo zela, Dinamarkara joatea suertatu zen, eta begien bistan ikusi zuen *albigense* edo *kataro* delakoen herejiaz eta beraien kontrako gurutzada krudelaz erukiturik, kokojende guzi hura, halako gerra egin barik, predikuz gonbertituko zuela agindu zion elizama santari, eta Inozentzio III.aren laguntzari esker, berehala sortu zuen *Dominikoen Ordena* 1216an Frantziako Tolosan. Haren ondore da, Santiobideko erromesen eraginez hainbeste sorginkeria utzi dizkigun Galzadako Domingo santua, eta sailleko beste asko ere bai.

Hala, *domingotar* haien bizikera eta sona medio, erruz ugalduko zen Domingo izena gure artean. Baina, nolako jende artean, endemas? Harrigarri da, esate bateko, jitoen artean izen honek sortu duen oihartzuna: *Domingo, Dominguez, Dominguin...* Eta ixildu orduko, jito kastako toreadoreak datozkio bati burura.

Are gehiago, zezenketan hain ezaguna den *domingillo* hitzaren historia ere, jakitekoa litzake nola sortua den? Ertaroko *domingero* eskazale zarpazu haien irudira, agian? Dena dela, honatx zer dioen J. M^a Iribarrenek: «taurumakiako historietan, zezenen indarra frogatzeko *domingilloak* erabiltzen, nafar toreadoreak ageri dira aurreneko». Ez dakit zergatik, gainera, euskal «*txotxongilo*» hitzaren sustraiak sumatzen ditut usuario eta izen horretan.

J. A. Arrietak ez dakit nondik atera, eta Oskorrik ozendu duen jitoakanta birmoldatu baten leloak ere hala dio:

Arta ganbaran motxolinguek domingilluek lairenlon.

Triskan egizu neskatotxae Motikotxae lairenlon.

Esanak esan, «*Txomin Domingon Baratz*», usuario luzeko baratz iluna dugu beraz, eta mereziko luke etnogeneologia historiko tiki bat osatzeak, gure *Dominga, Domingone, Domintxene, Domintxin, Txomin*, eta ahaldekoen kriptologia argituz.

Ziria

• Motxorrosolo •

Lozorroan

OTEIZA ETA TXILLIDAREN ARTEKO BESARKADA IZAN DUGU HIZPIDE. Nafar Kultur Kontseiluaren azkeneko bileran ere, Jorgeren Fundazioa izan zen aipagai. Fortunatu zirenen artean, batek, guttiz hanpaturik, Fundazioaren inguruko zenbait xehetasun eman zituen. Hartutako lana alimalezkoa zatekeen, ondoren lozorroan geratu baitzen, zurrunkak oraindik ere aditu daitezke gure kulturaren zelai hitsetan barna.

Manoli Artza

Sukaldaria

«Hemengo etxeetan jatekoa beti ongi prestatu da»

Juli eta Mari ahizpekin batera 25 urte daramatza Iruñeko Hartzia jatetxearen kargu Manoli Artza sukaldariak. Nafarroako beste zazpirekin batera, Espainiako jatetxerik hoberenak jasotzen dituen gidan sartu dituzte. Sukaldean ongi aritzen diren seinale.

SUKALDEKO SUAREN EPELAK LA-saitasunerako otordua eskaintzen du. Soseguz hitz egiten du Manolik, patxadan. Plater onak behar dituen osagaiak neurrian aukeratzen dakien moduan, halaxe mintzatzen da.

■ **Zaragozan aurkeztu berri den Espainiako gastronomiarik hoberenaren Gida liburuan aukeratuak izan zarete Nafarroako beste zazpi jatetxeekin batera. Pozik egoteko Eguberrietako opari polita jaso duzue.**

Bai, baina zerrenda horretan sartu eta Michelin gidako izarra kendu digute. Bat eman eta bestea kendu egin digute. Hemezortzi urte badira Michelin izarra genuela eta inoiz baino hobekiago egiten duzula pentsatzen duzunean, hainbeste urtetan ikasi eta hartu duzun eskarmentuak baliu dizulakoan zaudete, eta begira.

■ **Nola lortzen da hainbeste urtez hain ongi aritzea?**

Lan asko eginez. Egun osoa gainean egon behar duzu eta salgai eta jaki hoberenak erosi behar dituzu, hori da sukaldaritzaren baten oinarria. Era berean, gustua izan behar duzu. Zure ahosabaia ere erabakigarria da.

■ **Urteek eskarmentua ematen dute baina, dena den, norbaitengandik ikasi izan duzu ofizioa?**

Hemengo etxeetan beti ongi prestatu izan da jatekoa eta gure Altsasuko etxean ere otorduak ongi prestatu izan ditugu. Etxea utzi eta Iruñera etorri baino lehen nik Iparraldeko Sokoako La Playan ikasi nuen eta nire bi ahizpek Bea-

saingo Castillo jatetxean. Egon garen jatetxeetatik hoberena geureganatzen saitu gara.

■ **Nola lortzen da ahosabai onak eta urdail asezinak asebetetzea?**

Oso eskaintza zabala dugu. Iruñera etorri ginenean barazkiak gehiegi egosten ziren eta gu hasi ginen beste era batean prestatzen; arinagoak egiten genituen. Barazki-panaxea ongi zerbitzatzen genuen, eta arraina ere bagenekien tratatzen. Nafarroan lehenak izan ginen barazkiak beste modu batean egiten. Hemen menestra egiten zen baina gu barazkiak banaka egiten hasi ginen. Pixkanaka-pixkanaka Nafarroan ezagutzen ez zen trufa ere asko landu dugu, zizak eta onddoak, ehiza... Nafarroan lehenak izan ginen barazkiak beste modu batean egiten. Nolanahi ere, bezeroak gauza naturalak eskatzen ditu. Sukaldaritzan saio asko egin diren arren, ez dago sekreturik. Jendeak ohikoa nahi du. Babarrun gorriak eta eguneko barazki freskoez gain, haragi eta arrain ongi prestatuak eskatzen ditu.

■ **Eguberrietan gaude. Duela urte batzuetatik hona asko aldatu dira otorduen ohiturak eta prestatutako jakiak?**

Lehen Altsasun ohikoa zen piper txorizeroekin egindako zopa, zurrurutuna deitua. Bisigua eta angulak. Kardua ez zen ezagutu ere egiten. Oilo trufatua edo kapoi erreare ere prestatu izan dugu. Urteak joan ahala jendearen nahiak aldatu egin dira. Egun, nahiago dute mariskoa, eta orduan ezinbestekoa zen bisigua orain ez da hainbeste jartzen.

■ **Zuek zer proposatzen duzue Eguberrietan?**



● LUIS AZANZA

soslaia

Eguberriak ez ditugu ospatzen. Kanporako janaria prestatzen dugu eta oso plater ezberdinak banatzen dira: lupiak, bisiguak, ehiza, eskatzen digutena. Etxean angulak eta oilagorra gustatzen zaizkigu. Askotan ez dugu afaldu ere egiten, otorduak prestatu eta gero zuzenean ohera joaten gara.

■ **Eguberrietako gozogintzan ere izan dira aldaketak?**

Bai. Guk ospatzeko ohiturarik ez dugun arren, Eguberri bezperan jendeak Gabonetako enborra eskatzen du. Hori Katataluinatik hartutako ohitura da, hemen turroia jaten baitzen. Sagar pudina, enborra, mazapana eta trufa dira estimatuenak. Lehenago turroia eta fruta ziren nagusi. Laranja eta sagarrak jaten ziren otorduren bukaeran, aurretik jandako koipea jaisteko.

■ **Hainbeste urtetan plater artean, hainbat gertaera ikusiak izan zirete.**

Hainbeste ditugu, hobe da ez

Gurasoak nahiko gazteak zirela hil zitzaizkien, eta etxean zuten ganadua —ardiak— kendu eta Iruñera etorri ziren 1972an. Egun Hartzia jatetxea dute Labriteko Aldapa kalean, baina oraingoa baino beherago izan zuten lehen jatetxea. Frontoia hurbil izaki, pilotaren inguruan mugitzen diren artekari eta espresariak ezagutu eta urte batean hiru emakumeon jatetxeak sona hartu zuen Nafarroako hiriburuan.

Mari harreraren eta Juli sukaldean aritzen dira, eta Manoli bietan. Urteetan irabazitako izen ona egun ere gordetzen dute, eta gizonezkoak ez ezik emakumezkoak ere sukaldean primerakoak direla frogatzen dute egunero.

Altsasun familia baduten arren, Eguberri eguna pasatutakoan, Urtezahar eta Urteberrirako Suitzara doaz. Hango jatetxeetan sukaldean nola aritzen diren ikusi bidenabar atsegitera eta ikastera doaz. «Han oso jatetxe onak daude, Europan dauden hoberenetakoak, eta ikastera goaz», esan digu Manolik.

gogoratzea. Batzuk onak eta besteak txarrak. Jatetxea pilotari esker eta haren inguruan mugitzen ziren enpresariet esker egin zen ezagun, eta pilotari hoberenak izan ditugu hemen. Egun bestelako enpresariak ditugu bezero nagusiak. Ezagun asko etortzen da, baina ez zaigu gustatzen esatea.

■ **Norbaiteskatu izan du kexa liburua?**

Bai. Hiru aldiz. Bi'an kartan agertzen zena ez genuela eta beste behin bati entsaladan azaldutako eltxo batengatik. Entsalada guztia jan ondoren eskatu zuen.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Pello Goñi

Tripa-festa

BARTOLOK EGUERRIETAN DEUS ez jateko agindua egin zuen, kontsumismoaren aurkako protesta gisa. Halere, festak hasi bezain laster, tentaldiak noiznahi mehatxatzen zuten. Egiten zizkioten gonbidapen guztiek zoraturata, korrika hasi zen, ihesi, oihanean barrena, baina bere lasterka eroan besoak zabal-zabalik zeramatanez gero, lau basoilo handi, zazpi txikiago, hogeita zazpi eper gris, hogeita hamabi gorri, bederatzi oilagor eta beste hainbeste uso harrapatu zituen. Eta oinekin, berriz, orein bat, bi azkonar, zortzi erbi eta hamabost basurde hil zituen. «Ekarri ozpina, Panurgo; ekarri ozpina», oihu egin zuen, Pantagruel bilakatua zegoela ohartu gabe. Eta preso zituena zaldun guztiekin ehizak nahastu eta hantxe erre zituzten Epistemonek eginiko bederatzi sutan. Tripa-festa ikaragarria egin zuten. Orduan, oihaneko leku hartan oroigarri bat eraiki zuten, jende orok beren balentriaren berri izan zezan. Bazkaldu ondoren izugarritzko puzkerra bota, eta eragindako haize ustelduarekin berrogeita hamahiru mila gizon txiki sortu zituen, ipotx eta makerrak zirenak. Gero beste bat bota zuen beste hainbeste andre ttipi eta makurtu sortuz, beherantz baino hazten ez direnak, behien isatsak bezala. «Alajaina! Benetan emankorrak dira zure puzkerrak», esan zion Panurgok: «Gizon eta emakume hauek ezkondu behar ditugu, mandeuliak sor ditzaten». Halako batean, Bartolo bere onera itzuli zen: izerditan blai zegoen logelan, maindire guztiak korapilo bat eginda. «Ez dut gehiagorik nahi, Panurgo!», errepikatzen zuen behin eta berriz.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruña:** Gaur **Betegarri** taldeak kontzertua eskainiko du Sanduzelaiko Txokoan 21:30etan.
- **Agoltz:** **San Miguel** abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur, 18:00etan, San Miguel elizan.
- **Aizoa:** **Los Rosslis**, **Half Foot Outside** eta **Los Acidos** taldeen kontzertua dago gaur, 23:30etan Artaia aretoan.

ERASKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Kultur Etxean **Blanca Razquin**en margolanak ikusteko aukera dago urtarrilaren 4ra bitartean.
- **Barañain:** **V. Peiro**, **J.L. Irigoien** eta **J. Rodriguez**en argazkiak ikusteko aukera dago abenduaren 30a arte, asteartetik ostiralera Kultur Etxean.
- **Lizarr:** **Luis Garridoren** Nafarroako paisaiak islatzen dituzten lanak ikusteko parada dago Gustavo de Maeztu museoan urtarrilaren 6ra arte.

ANTZERKIA

- **Iruña:** **Xabier Diez Esarteren** 'Ez geratu jokoz kanpo' taularatuko dute Nafarroako Antzerki Eskolako ikasleek gaur eta bihar, 12:00etan, NAEren egoitzan.
- **Iruña:** **Trokolo** eta **Shambu** taldeek 'Tantaz tanta' eta 'Lehenaren sekretua' antzezlanak eskainiko dituzte datorren asteartean eta asteazkenean, hilak 30 eta 31, Gaiarre antzokian, 12:00etan.
- **Tafalla:** **Gorakada** taldeak **Txanogorritxu** txotxongilo ikuskitzuna eskainiko du gaur, 18:00etan, Kultur Etxean. Astelehenean berriz, **Ppinotxo 2000** lana aurkeztuko du toki eta ordu berean.
- **Tafalla:** **TEN Pinpilinpauza** taldeak *El soldadito de plomo*

taularatuko du, datorren asteartean, 18:00etan Kultur Etxean.

BESTELAKOAK

- **Iruña:** **Gizalan** taldeak zaharberitutako 52 altzariren erakusketa zabalik dago Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Sario eraikinean. Era-

kusketa ikusi eta zerbait erosi nahi duenak aukera du gaur, 29an eta 30ean eta ilbeltzaren 2an 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Bihar, 31n eta ilbeltzaren 3an, berriz, goizez bakarrik egonen da zabalik.

- **Bera:** **Xalto sariketako** finala gaur iluntzean izanen da Umore Ona elkartearen Afari-

tara bilduko dira bertsolari zein bertsozaleak, eta ondoren lehiatuko dira sei gazte: Xabier Legarreta, Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea, Amets Arzallus, Oskar Estanga eta Erika Lagoma.

- **Elizondo:** **Euskaldunak Ameriketako** hitzaldia eskainiko du **Joseba Etxarrik** asteartean, 20:00etan, Arizkunenean.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

LAMINOSINA · AZPIKO ARROPA



Gizon bat hil nuen dirua eta emakume bat eskuratzearren. Ez daukat ez diru, ez emakumea. Emakumea hiltzaila da. Ez dago bueltarik. Ziri ederra sartu dit, eta kometa baino gorago zintzilik erazteko adina badaki nitaz. Espero dut oparitu diodan azpiko arropa gustatu izana.

LAMINOSINA

A Z P I K O A R R O P A